

## Asteazken arratsaldea

### Bartzelona

#### Bartzelona ezagutzen

Bazkaltzeko ordua zen eta pickin mixerable bat besterik ez genuen. Plaza Kataluñarantz abiatu ginen eta bertan bazkladu genuen. Bazkal ostean Sephora (kosmetika denda batera) joan ginen. Orduan gu eta beste lagun batzuk aspertuak ginenez kanpora irten ginen eta horren ondorioz Naiara gure gana hurbildu zen. Orduan Naiarak barrura sartu nahi zuen baina gero kanpora atera zen eta ez dakigu zer pasa zitzaion zeren barrura eta kanpora zebilen denbora guztian eta horren ondorioz segurtasuneko gizonak bronka bota ostean juateko agindu zion. Ondoren denak Rambletara joan ginen eta bertako dendak ikusi genituen. Pixkat beranduago, kanpotar rapero bat etorri zitzaigun eta rap bat bota zigun. Arrituta eta beldurtuta alde egin genuen zorro-lapurra zelakoan. Ondoren plaza batera joan ginen eta hango aulki batean eseri ginen. Eguraldi ona zegoen eta oso gustura egon ginen argazki batzuk ateratzen. Geroago aleman batzuk etorri ziren eta beraiekin al genuen moduan hitz egin genuen. Zortzi terditan autobuseruntz joan ginen eta bederatzi terditarako jada hotelean ginen.



### Gaua

Afaldu ostean, dutxatu, jantzi eta denak hoteleko sarreran geratu ginen diskotekaruntz joan ginen. Hasiera batean pixkat aspertua ginen musika txarra baitzegoen baina gero Gallegoak etorri zirenean gaua animatu zen. Bitartean irakasleak kanpoko sofetan zeuden mojito batzuk hartzen. Gaua ondo joan zen eta ordubiak inguru hotelera joan ginen, han pixkat hitz egin genuen eta ondoren lotara joan ginen.

